

Prentsa Dosierra

Amantalen ahotsa 75 urte



Urriak 7, 20:00
Victoria Eugenia
Donostia

Sarrera

Aurtengo uztailean 75 urte bete dira gerra hasi zela, eta, mugarri hori baliatuta, urte haietako historia kontatu nahi dugu. Emakumeen begietatik egingo dugu, haien bizipenetan oinarrituta. Ikuskizunaren bizkar-hezurra adineko emakumeen testigantzak izango dira, www.ahotsak.com proiektuko bideo pasarteak. Bertsoek, zuzeneko musikak, kantuek, antzezkiak eta dantzak borobilduko dute saioa; haiek ere narratzaile lana egingo dute, nork bere erara eta bere baliabide artistikoekin.

70eko hamarkadatik honako historia ezaguna da, hurbila, baina aurreko 40 urteetakoa ez hainbeste. Horrenbestez, interesgarria iruditzen zaigu laburpen moduko bat egitea, garaian garaiko gertaera nagusiekin. Emakumeek etxean, lanean, kalean... bizi izan zutena. Haien pozak, nekeak eta buruhaustea. Gerra garaian eta ostean.

Gerra sasoiko pasadizoak batez ere gizonen kontatu dituzte orain arte, borrokan parte hartu zutenek. Bitartean, emakumea familiaren euskarria izan zen; hala ere, haren minak eta ahaleginak ezkutuan geratu direlakoan gaude. Gerrako kontuez gainera, gizarteko alor guztiak jorratuko ditugu: etxeke ohiturak, eskolako martxa, laneko gorabeherak, kaleko giroa, erlijioaren indarra... batzuetan gordin eta besteetan umorez. Atzoko eta gaurko emakumeen ikuspuntutik.

Gipuzkoako eskualde guztietako emakumeen ahotsak hartuko ditugu aintzat, sukaldetik plazara aterako ditugu. Gure amonei eman nahi diegu hitza, eta soka horri helduta, zerbait berria eta modernoa sortu. Horretarako, ikuskizunean kulturako alor askotako pertsonak batuko ditugu. Horien artean musikari, dantzari eta bertsolari ezagunak ere badaude.



Fitxa teknikoa

Bertsolaria: Maialen Lujanbio

Dantzariak: Oinkariko dantza taldea, Laura Martin

Kantariak: Amaia Zubiria, Arianne Unamuno, Zaloa Urain (Kokein), Ain_1

Musikariak: Sorkunde Idigoras (pianoa), Arantxa eta Eli Ansa (txalaparta),
Mirari Irurzun (biolina)

Kontalaria: Itziar Ituño

Antzezleak: Ainere Tolosa, Sara Cozar, Maite Bastos, Naiara Arnedo

Idea, lanketa eta ekoizpena: Amantala Kultur Elkartea

Zuzendari artistikoa: Agurtzane Intxaurreaga

Argi diseinua: Xabier Lozano

Irudi diseinua: David Bernues

Kontaktua

Amantala Kultur Elkartearen telefonoa: **615755784**

Helbide elektronikoa: amantala.kultur.elkartea@gmail.com

Sare sozialetan ere bagaude! Facebooken:

www.facebook.com/amantalaelkartea

Edozein zalantza edukiz gero, jarri gurekin harremanetan.

Sarrereren salmenta

Sarrerak irailaren 29tik aurrera egongo dira salgai, 12 eurotan, Victoria Eugeniako ohiko bideak erabilita: Victoria Eugenia bertan, Principal antzokian eta Interneten.



Antolatzaileak

Antolatzaile lanetan euska gintzan lanean dihardugun hainbat pertsona elkartu gara, alor ezberdinetakoak: antzerkia, kazetaritza, musikagintza, bertsolaritza, historia... Ikuskizun honen ideia gorputza hartzen joan ahala, Amantala Kultur Elkarteak sortu dugu.



Laguntzaileak



donostiakultura.com



Babesleak



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Euskara Departamentua



Idoia Etxeberria
Amantala Kultur Elkarteko kidea



Nolatan sortu zen ideia?

Idea gerrako kontuak jasotzen ari ginea sortu zen, duela urte eta erdi inguru. Aurtengo uztailean 75 urte bete dira gerra hasi zenetik, eta momentu ona iruditu zitzaigun orduan gertatu zena azaltzeko. Baina hasieratik garbi genuen ikuskizun artistikoa egin nahi genuela, hainbat diziplina batuko zituenena. Hori martxan jartzeko Amantala kultur elkarte sortu genuen.

Zergatik emakumeen ikuspegitik?

Eta zergatik ez? Hori 'zergatik euskaraz?' galdetzea bezalaxe da. Gu emakumeak gara, eta euskaldunak. Horregatik da ikuskizuna euskaraz eta emakumeen bizipenetan oinarrituta. Ikuskizuna ez zen sortu aldarri feministarik egiteko, baina bai emakumearen lana eta bizimodua ezagutarazteko. Gerran gertatu zena gizonen kontua dela dirudi, haiek egon zirelako frontean. Baina biztanleen erdia emakumeak ziren orduan ere, eta gizonak bezainbeste sufritu zuten. Azken batean beraiek egin ziren familiaren kargu. Baina beti isil-isilik.

Ikuskizunean adineko emakumeen testigantzak agertuko dira. Nola egin duzue aukeraketa?


Ahotsak.com egitasmorako eginda zeuden elkarrizketak erabili ditugu. Bideo pasarteak aukeratzea lan luzea izan da. Gipuzkoan emakume asko daude elkarrizketatuta, eta guk landu nahi genituen gaiak topatzea ez da erraza izan. Gainera, azpieuskalki guztiak nolabait ordezkaturik egon zitezela saiatu gara. Denera 40 emakume ingururen pasarteak aukeratu ditugu, gerrako gertaerekin eta gerra osteko giroarekin lotuta: eskola, lana, ezkontza, elizaren indarra...

Artistak, berriz, denetarik daude: bertsolaria, dantzariak, aktoreak, musikariak eta abeslariak. Zeren araberakoa izan da?

Gure gustuko artistak elkartu ditugu, ikuskizuneko mezuarekin eta giroarekin bat zetozenak. Bakoitzak bere erara, bere baliabide artistikoekin, gure amonek emandako sokari helduko diote. Horrela aberasgarriagoa eta politagoa dela uste dugu. Transmisioa oso inportantea da guretzat, eta etxeko sukaldetik antzokira eramango dugu hori. Artista batzuk aski ezagunak dira (Maialen Lujanbio, Amaia Zubiria...), beste batzuek ez hainbeste, eta euren buruak ezagutarazteko abagunea izango da hau, talentu berriak bistaratzeko. Dena behar bezala lotzeko, Agurtzane Intxaurraga zuzendari artistikoa egundoko lana egiten ari da. Kalitatea bermatu nahi genuen, eta horregatik jo genuen berarengana. Ez genuen gaizki jositako puzzle bat egiterik nahi, eta ez da izango.

Nolakoa izango da ikuskizuna?

Entretenigarria izango da, bizia, orain hunkigarria orain umoretsua, ikusleari bidaia polita proposatuko diona: bidaia denboran barrena eta bidaia norberaren barrura. Ikusleari inoiz ikusi ez duen zerbait eskaintzea da gure asmoa. Ikuskizun artistiko berezia izatea espero dugu, ikasteko, hausnartzeko, hunkitzeko eta irribarre egiteko aukera emango duena.



Agurtzane Intxaurreaga

Zuzendari artistikoa



Zein da zure ardura ikuskizunean?

Eszena zuzendaria edo artistikoa. Deitu nahi diozun moduan. Nik neuk halakoetan nire buruari eskatzen diodana da oinarritzko planteamentuari ikuspegi artistiko bat ematea, ikuslearentzat gozagarria izateko, eta horretarako ahalik eta zentzu guztiak jorratzen saiatzen naiz, bihotzeraino errazago iristeko.

Ikuskizun bakarra izango da, baina oso potoloa. Egin duzu halakorik aurretik?

Bai, zorionez badaukat eskarmentua lan hauetan. Baina bakoitza bakarra da eta ardura handia da niretzat. Kasu honen berezitasun bat da ez dagoela aukerarik jende guztia batu eta entsegu asko egiteko. Zuzendari modura arkitektura lana egin dut eta gero etxearen parte bakoitza osatzen joaten naiz partaide bakoitzarekin. Azkenean, bi edo hiru entsegu orokor egiten saiatzen naiz, baina hori ez da asko. Egun bakarreko hordagoa da.

Zenbat denbora daramazu puzzleari forma ematen?

Idoia ekaina bukaeran deitu ninduen proiektu honi buruz hitz egin eta zuzendaritza artistikoa egiteko eskatzeko. Hor osatu genuen puzzlearen nondik norakoa. Eskaleta bat eraiki genuen, baina esan liteke iraileko lehen egunean hasi nintzela horretan buru belarri.

Zergatik animatu zinen parte hartzera?

Idea gustatu zitzaidalako, argi eta garbi. Gerra bizi izan zuten emakumeen lekukotasuna, nolabait lotuta zegoen nire aurreko antzerki-lanarekin, *Ilargiaren bi aldeak*-ekin. Joko belikoen aurkako aldarrikapen bat egiten nuen (gure gizarte kapitalista honetako gerra birtuala) eta *Amantalen ahotsean* nire amamak eta beste gainontzeko amama guztiak euren larrutan bizi izan zuten horri ahotsa jartzea beharrezkoa iruditu zitzaidan.

Dokumental ukitua izango du, baina era berean artistikoa izan behar du... ez da erraza izango!

Ezer ez da erraza ondo egitea. Batzuetan asmatzen da eta beste batzuetan, zoritxarrez, ez. Baina nahikoa urte daramatzat lanbide honetan eta ibilbidean zehar ondo egindakoak zeureganatzen eta ondo gordetzen saiatzen zara; aldiz, gaizki egindakoak ez errepikatzea da kontua, eta horietatik ikastea. Niretzat edozein gauzari eszenatokian ukitu artistikoa ematea gozamina da, luxua. Ondo ateratzea nahi nuke. Eta ez dut nire buruarekin soilik pentsatzen, batez ere, gerra bizi izan zuten emakume horiei guztiei merezi duten oparia egin nahi nieke.

Aurpegi ezagunak daude ikuskizunean eta baita ezezagunagoak ere...

Nik modu berean tratatuko ditut denak, denok baikara gure txikian handiak eta guztiak eszenatokian dizdiz egin dezaten saiatuko naiz.

Proiektu honek zer edo zer berririk eskaini dizu?

Bai. Ez da lehen aldia oholtza gainean emakumeak bakarrik dauden ikuskizuna zuzentzen dudala. Baina, orain arte, antzerki lanak izan dira, eta ez era honetako ikuskizun potoloak. Hirurogei emakumetik gora izango dira eszenatokian eta horrek berezia egiten du. Gustura nago lantaldean, eta barre asko egiten dut.

